

Elikadura eta ohitura osasungarriak haurtzarotik 413-1

Informazioa eta prestakuntza oinarritzko tresnak dira elikadurari dagokionez erabaki egokiak hartzerakoan. Hori dela eta, haurren gizentasuna prebenitzen duen elikadura sustatzen dugu, eta heziketa-tresnak eskaintzen dizkiegu haurrei, erabaki hobeak har ditzaten haien elikadurari buruz, modu kontziente eta dibertigarrian.

Elikadura Eskola

EROSKI Fundazioaren ekimen hau 2013an sortua da, herritarren artean elikadura eta ohitura osasungarriak sustatzeko. Bertan elkartzen dira osasunaren eta hezkuntzaren arloko profesionalak, gurasoak, ikasleak eta elikadura eta ohiturak hobetzeko konpromisoa duten gainerako herritarrak.

Eskolak kalitatezko informazio eguneratua eskaintzen du, ezagutza zientifikoan eta berak landutako ikerketetan oinarritua eta osasun arloko profesionalen bermearekin. Eki-menak garatzeko, autonomia gobernuekin eta osasunarekin eta kontsumo arduratsuekin erlazionatutako erakundeekin batera egin du lan.

www.escueladealimentacion.eu



EROSKI Taldearen Elikadura eta Ohitura Osasungarriei buruzko Heziketa Programak (EOOHP)

EROSKI FUNDAZIOAREN "Energia hazteko"

EROSKI Fundazioak abiarazi zuen programa, haurren gizentasuneko tasari aurre egiteko: 10 unitate didaktiko eta 3 tailer praktikotitu, eskolaz kanpo egiteko (tokiko ekoi-zleei, dendei eta sukaldaritzatailerari bisita). Medikuntza, nutrizio eta dietetika, psikopedagogia eta pedagogian profesionalak diren Batzorde Zientifiko batek sortu ditu edukiak.

energiaparacreceer.escueladealimentacion.es/eu

CAPRABOren "Aukeratu ona, aukeratu osasungarria"

Programa hau 2008an abiarazi zen, aurrez aurre eta sarean, eta bere helburua da haurrei (2 eta 3 urte artekoak barne) modu osasungarrian elikatzen irakastea eta elikadura-ohitura orekatuak sustatzea. Nutrizioan aditua den profesional batekin batera, garapen jasagarriari, kontsumo arduratsuari eta goserik ez egoteari buruz kontzientziatzeko helburua ere badu, besteak beste.

VEGALSA-EROSKIren heziketa programa

Galizian, gure heziketa-programa ekimen hauen bidez bideratzen da: "Visita tu súper" (Etorri supermerkatuara), ohitura osasungarriak eta erosketa arduratsua sustatzeko; "Mates en tu súper" (Matematikak supermerkatuan), supermerkatuara joateko erosketa egiten ikasteko; eta "Come Rico, Vive San" (Jan gozo, bizi ondo), ikastetxeetan "San-nifestas" gisako ekimenak biltzen dituen proiektua, "Prevención de la Obesidad. Aligera tu Vida" (Gizentasunaren prebentzioa. Arindu zure bizitza) programa nazionalaren barruan, Gizentasuna Ikertzeko Espainiako Sozietateak (SEEDO) gidatua.

EROSKI Taldearen heziketa programetako adierazle nagusiak 2018/2019 ikasturterako

442.677
ikasle
parte-hartzaile

3.253
ikastetxe
parte-hartzaile

1.034
bisita-tailer
201 dendentara

89
bisita EROSKIren
tokiko enpresa
hornitzaileei

72
sukaldaritzatailer
Euskadiko eta
Nafarroako
bederatzi
dendentan

EROSKI Fundazioaren Elikadura Eskolaren VIII. Topaketa

2009tik hona, EROSKI Fundazioak zenbait topaketa sustatu ditu, osasun arloko profesionalak eta osasunaz kezkatzen diren eta premiak dituzten herritarren artean. Helburua beti da gogoetarako gune bat eskaintzea herritarren osasunarekin zerikusia duten gai garrantzitsuen inguruan.

2019an, "Bizitzeko pasioa. Helduaro betearen eta osasunaren sekretua" izenburuarekin, nutrizio, psikologia, osasuna, soziologia eta jarduera fisikoko hainbat adituk aztertu egin dute elikadura eta bizimodu osasungarriaren garrantzia bizitzeko etapa honetan. Ekitaldiaren barnean, EROSKI Fundazioak "Bizitzeko pasioa. Helduaroan bizimodu osasungarria eramateko gida praktikoa" liburua aurkeztu zuen.

Imagine Food 2019 lehiaketa

Hirugarren urtez jarraian, Imagine Food lehiaketa antolatu dugu, EROSKI Fundazioaren "Energia hazteko" heziketa-programaren barruan. Helburua da haurrak eta haien familiak kontzientziatzea dieta orekatu eta osasungarria izateari buruz, errezeta dibertigarriak eta osasungarriak sortuta marrazkien bidez. Hirugarren edizio honetan, DADONERekin elkarlanean aritu hara, bere "Alimentando el Cambio" (Aldaketa elikatzen) programaren barruan. 237 ikastetxeko 2.800 marrazki baino gehiago jaso ziren, 91 familiakoak, iazko partaidetza hirukoiztuta.